

Gizarte-ekonomia eta gizarte-enpresak: krisi garaitarako irtenbide bat eta aukera juridiko desberdinak¹

Igone ALTZELAI ULIONDO

Merkataritza Zuzenbideko irakasle agregatua
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
GEZKI institutuko kidea

Sarrera data: 2014/03/24

Onarpen data: 2014/05/06

Aurkibidea: 1. Sarrera. 2. Gizarte-ekonomiaren onurak. 3. Gizarte-enpresak, aukera desberdinak. 3.1. Sozietate-mota desberdinak. 3.2. Sozietateak ez diren beste erakunde batzuk. 4. Legezko eredu baten bila. 4.1. Menpekotasuneko Legearen ekarpena. 4.2. Lege berezia: Gizarte-Ekonomiaren Legea. 4.3. Europar Batasuneko ereduak. 4.4. Lege-egitasmo berri bat. 5. Ondorioak. 6. Bibliografia.

Laburpena:

Gure gizartean bada nahiko zabaldua dagoen pentsamendu bat, alegia, gizarte-ekonomiako enpresak oro har enpresa kapitalistak baino hobe egokitzen direla krisi garaitara. Ideia hori abiapuntu hartuta, lan honetan, batetik, krisi ekonomikoaren aurrean gizarte-ekonomiak eskaintzen dituen onurak behatuko ditugu. Bestetik, berriz, gizarte-enpresatan erreparatuko dugu. Espainiar legedian oinarri sendorik ezear, halako enpresak sortzeko zuzenbidean aurki daitezken aukera desberdinak aztertuko ditugu, horretarako ikuspegi europarraz baliatuz.

Hitz gakoak:

Gizarte-ekonomia, hirugarren sektorea, gizarte-enpresak, sozietateak

Resumen:

Existe un pensamiento bastante extendido en nuestra sociedad según el cual las empresas de economía social, en general, se adecúan mejor a las épocas de

¹ Lan hau Euskal Herriko Unibertsitateak babestutako honako ikerketa-proiektuan garatua izan da: *EHU 12/28 La responsabilidad social empresarial, un reto más para las PYME*, ikerlari nagusia Igone Altzelai, Merkatartitza Zuzenbideko irakasle agregatua izanik.

crisis que las empresas capitalistas. Partiendo de esa idea, en este artículo nos centraremos en los beneficios que ofrece la economía social en una situación de crisis económica y, asimismo, profundizaremos en las empresas sociales. A falta de una base legal firme en la legislación española, analizaremos las diferentes posibilidades existentes en Derecho para la creación de tales empresas, sirviéndonos para ello de la perspectiva europea.

Palabras clave:

Economía Social, Tercer Sector, Empresa Social, Sociedad.

Abstract:

It is widely accepted that, in times of economic crisis, business models based on ethical behaviour and social impact work better than business models based on greed and exploitation. On the basis of this working hypothesis, the paper analyzes on the one hand the benefits from the social economy in times of economic adversity. On the other hand it pays attention to social enterprises. Spanish law does not provide for any set structure but it provides other tools that can be used to create them. Such tools will be analyzed using the European approach to the social enterprise.

Keywords:

Social economy, third sector, social enterprises, companies.

ECONLIT:

K-200, K-230, L-210

1. Sarrera

Gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoaren testuinguru honetan, gizarte-ekonomiako enpresek aukera desberdin bat eskaintzen dute ekintzailentzako, enpresa-proiektu berriak bideratzeko. Eremu honetan kokatzen dira, esate baterako, lan elkartuko kooperatibak, sozietate laboralak, elkar-teak edota fundazioak, besteak beste.

Esan beharra dago ere erakunde publikoen aldetik zenbait politika berezik eta horien artean garapen lokala bultzatzen duten plangintzek enpresa-mota hauen ugaltzean eragin handia izan dutela. Horren arrazoi bat izan da gehienek mikro-enpresak, enpresa txikiak edo ertainak izanda ere, enplegu egonkorra eta kalitatezkoaren aldeko apustua egin ohi dutela. Baina

ez hori bakarrik, denok dakigu hauetariko enpresa askoren helburua izaten dela baztertuak geratzeko arriskua pairatzen duten zenbait giza-talderi lan-merkatuan sartzeko aukera ematea, adibidez, emakumeei, gazteei, etorkinei, pertsona desgaituei, e.a. (MELIÁN eta CAMPOS, 2010: 46). Helburu hauek lortzeko asmoz eraikitzen da politika ugari, bai Europar Batasunean (PARLAMENTO EUROPEO eta CONSEJO, 2006; COMISIÓN, 2014a), bai eta Estatuko administrazio publikoaren maila desberdinetan ere, zentrolean, autonomikoan nahiz lokalean.

Idatzi honen helburua da, murgildurik gauden krisi ekonomiko sakon honetan, gizarte-ekonomia eta ekonomia solidariotik eman daitezken erantzunei buruzko azterketa egitea. Horretarako, abiapuntu bezala, oinarritzko bi kontzeptu hartu ditugu: batetik *gizarte-ekonomia* eta bestetik *gizarte-enpresa*. Gure lanean lehendabizi *gizarte-ekonomia* deiturikoan kokatuko gara eta mugimendu horrek krisi ekonomikoaren aurrean eskaintzen dituen onurak ikuskatuko ditugu, azpimarratzekoak dira eta. Ondoren, berriz, *gizarte-enpresa* aztertuko dugu krisiari aurre egiteko irtenbide moduan interes handiko baliabidea izan daitekelako.

Gauza da, enpresa hauek forma juridiko oso desberdinak har ditzaketela. Hauetariko forma batzuk tradizionalki gizarte-ekonomiaren ideiarekin lotuak egon dira luzaroan, baina beste batzuk berriz ez. Hori dela eta, gizarte-enpresa definituko duen legezko eredu bat eraikitzeko garaia iritsi dela aditzera eman nahi dugu eta horretarako beharrezkoak diren zenbait oinarri azaldu, beti ere europar ikuspegia kontuan izanik.

2. Gizarte-ekonomiaren onurak

Denok dakigu gizarte-ekonomia, ekonomia solidarioa, hirugarren sektorea eta horrelakoak definitzerako orduan ez dagoela iritzi bateraturik adituen aldetik. Hala ere, esaerak dion bezala «izena duen guztia da». Gizarte-ekonomiaren kasuan, kuantifikatu ere egiten da eta erakunde publikoek datuak ematen dituzte. Adibidez, Europar Batasuneko iturrien arabera, gizarte-ekonomiak bere barne produktu gordinaren %10 hartzen du eta 11 miloi langile baino gehiagori lana ematen die. Zehazki, gizarte-enpresek populazio aktiboaren zein portzentai hartzen duten ere adierazten dute datu hauek, esate baterako: Finlandian %17, Erresuma Batuan %5.4, Eslobenian %4.1, Belgikan %3.3, e.a. eta urtero Europar Batasunean sortzen diren lau enpresa berriak bat gizarte-enpresa dela diote, Finlandian, Frantzia eta Belgikan hirutik bat izanik (COMISIÓN EUROPEA, 2014b: 3).

Europar ikuspegi honetatik, gizarte-enpresariak badituzte zenbait berezitasun gainontzeko enpresariak ez dituztenak. Hasteko, esan behar da beren helburua edo helburu nagusia ez dela irabazi-asmoa. Neurri handi

batean, enpresa hauek autoenplegua bilatzen dute modu kolektiboan. Pertsona talde batek elkarren artean garatutako proiektu kolektiboen emaitza izaten dira eta ez proiektu indibidualak. Gainera, enpresa hauen kudeaketa printzipio demokratikoetan oinarritua egon ohi da. Guzti horrek gizarte-integrazioaren alde lagundu egiten du eta krisi garaitarako emaitza bereziki onurakorrek eskaintzen ditu, hala nola, enplegu-kantitate handiagoa, kalitate hobegokoa eta lekuan lekuko hazkunde orekatuagoa eta iraunkorra (MELIÁN eta CAMPOS, 2010: 53).

Horrela, esan daiteke gizarte-ekonomia deiturikoaren baitan garatzen dela gaur egun horren aldarrikatua den gizarte-berrikuntza. Bere xedea da, lehendik daudenak baino eraginkorragoak, iraunkorragoak edo bidezkoagoak diren irtenbideak bilatzea eta gainera gizarte osoarentzat onuragarriak izatea. Hori dela eta, enpresan parte hartzen dutenen arteko harremanak, baina baita ere enpresak hirugarrenekin dituztenak, hau da, kontsumitzaileekin, bezeroekin, hornitzaileekin edota gizarteko beste agente batzuekin dituztenak, aintzat hartu eta modu berezian lantzen dira. Horren adierazle gisa jartzen dira lan elkartuko kooperatibak, sozietate laboralak, kontsumitzaileen kooperatibak edota laneratzeko enpresak, besteak beste.

Botere publikoen aldetik, garapen lokaleko politikak, laneratzeko eta gizarteratzea helburu dutenak, ugariak dira, maila askotakoak (udalekoak, eskualdekoak, autonomikoak, estatalak) eta oso heterogeneoak. Ondorioz, zeregin horietan jarduten duten erakundeak ere modu askotakoak izaten dira: elkarteak (ad. talde ekologistak, kontsumitzaile-elkarteak, talde erligiosoak), sindikatuak, enpresarien elkargoak (ad. kooperatiben federazioak) edota fundazioak, baina baita ere, kasu batzuetan, merkataritzako enpresa-forma duten erakundeak (ad. sozietate anonimoak edo erantzukizun mugatuko sozietateak). Horietako asko modu zuzenean edo ez-zuzenean administrazio publikoarekin erlazionaturik egoten dira eta hauek ere erakunde bereziak sortzen dituzte (ad. enplegu-agentziak, garapen lokaleko agentziak). Multzto handi horretan kokatzen dira gizarte-ekonomiako enpresak, ekimen pribatutik sortutakoak, hauek badituztelako zenbait ezaugarri garapen lokala nahiz laneratzeko eta gizarteratze-estrategiak bideratzeko bereziki aproposak direnak (TARAZONA eta ALBORS, 2005: 70). Hona hemen, laburbilduz, ezaugarri horiek.

Lehenik eta behin, noski, gizarte-ekonomiako enpresen alderdi soziala dago. Alderdi honek balio erantsia eskaintzen du eskualde edo lurraldearen garapenerako eta gizartearen aurrerapenerako, bestelako enpresek ez daukatena. Alegia, gizarte-enpresen inguruan sortzen diren harremanetan, enpresa barneko nahiz kanpoko harremanetan, pertsona eta bere lana dira nagusi eta horrek pertsonen inplikazioa erakartzen du, solidaritatezko inplikazioa, enpresaren alde edota gizartearen alde lan egiteko. Izpiritu horri esker gizartean kohesio handiagoa izatera iritsi daiteke eta horrela bazter-

tuta dauden zenbait giza-talderen gizartearaztea lortu, maila batean behintzat. Hau da, hain zuzen, gizarte-ekonomiaren onura inportantetariko bat.

Bigarrenik, bere alderdi lokala ere azpimarratu behar da. Gizarte-ekonomiako enpresak laneratze eta gizarteratze-politiken beharra duten giza-taldeen egoerataraz errazago egokitzen dira. Besteekin alderatuz, gizarte-enpresek gehiago jarduten dute merkatu lokal eta eskualde-mailakoetan, beren lurraldeari lotuta, eta horrek ondorio onurakor zuzen zuzenak sortzen ditu, bai enpleguan bai eta bestelako enpresek eskaintzen ez dituzten produktu eta zerbitzuetan ere. Neurri handi batean, gizarte-ekonomiaren indarra bere sustrai lokaletan dagoela esan daiteke (WESTLUND eta WESTERDAHL 1996: 24), horretxek eragiten bait du pertsonak helburu zehatz eta komun batzuren alde mugitzea eta konpromezuak hartzea.

Hirugarrenik, alderdi enpresariala aipatuko dugu, honek ere berezitasun interesgarriak eskaintzen ditu eta. Gizarte-ekonomian jarduten duten enpresen kudeaketarako eredu sarritan langileen parte-hartzean oinarritzen da, beren parte-hartze aktiboa bultzatzen dute (COMITÉ DE LAS REGIONES, 2002: 8). Haiek izan ohi dira aldi berean bazkide, langile eta kudeatzaile, eta horrekin enpresarenganako konpromezua eta motibazioa sustatu egiten dira. Ondorio horrek, enpresaren lehiakortasunerako elementu interesgarri izateaz gain, bere proiektuen bideragarritasunaren alde egiten du eta, azken finean, enpresaren iraunkortasunaren alde. Ondorioz, sortutako lanpostuen egonkortasuna bermatu egiten da nolabait eta horrek eremu lokalean enplegua sendotzea eta hazkunde ekonomikoa areagotzea ekartzen du.

Gauza da, gizarte-ekonomia deituriko mugimendu zabal honetan jarduten duten enpresa eta erakundeek har ditzaketen forma juridikoak era askotakoak izaten direla eta desberdinak ere herrialde edo estatu bakoitzean. Beraz, gerta daiteke gizarte-enpresak identifikatzea erraza ez izatea. Hala ere, badira hauen artean beti aipatu izan diren erakunde-mota batzuek, hots, kooperatibak, mutualitateak, elkarteak eta fundazioak. Horiez gain, azken garaitan forma juridiko berriak ere sortu izan dira, adibidez, interes orokorreko kooperatibak edota gizarte-enpresentzako forma bereziak, esate baterako, *Benefit Corporation* eta *Low-Profit Limited Liability Company*, Estatu Batuetan; *Community Interest Company*, Erresuma Batuan edota *Impresa Sociale*, Italian. Edozein kasutan, esan daiteke, luzaroan sozietate kooperatiboa izan dela nagusiki gizarte-ekonomiaren erreferentziako enpresa-eredua.

Dena den, pertsona-talde bat gizarte-enpresa bat sortzeko eredu bila hasten denean eta adituengana jotzen duenean aholku eske, sarritan gertatzen da hauek enpresak eratzeke bestelako figura juridikoak proposatzea, tradizionalki merkantilak esaten diren horietakoak. Esate baterako, errazago gomendatzen dituzte askotan kapitaleko sozietateak (sozietate anoni-

moak eta erantzukizun mugatuko sozietateak), beste figura batzuk baino, agian ezezagunagoak eta konplexuagoak egiten zaizkielako. Nola uztartu orduan batzuren nahia eta besteen aholkua?

Galdera honi erantzuteko esango dugu, agian askok uste dutenaren kontra, inportanteena ez dela erakundearen forma juridikoa, gizarte-ekonomiaren edukia baizik, hau da, balore berezi horiek izatea (PANIAGUA, 2011:30, 2013:4). Horregatik, gizarte-ekonomiaren onurak ikusita, lan honetan, enpresak sortzeko zuzenbideak eskaintzen dituen formula juridiko desberdinak harakatu ditugu, ekonomia-mota horretan kokapenik ote duten ikusteko.

3. **Gizarte-enpresak, aukera edo formula desberdinak**

Esan bezala, gizarte-enpresek hainbat tamaina eta forma juridiko desberdin hartu ohi dituzte: elkarteak, fundazioak, sozietate kooperatibak, e.a. Baina, edozein kasutan, iritzi publikoan oso zabaldua dagoen ideia da, gizarte-enpresak irabazi-asmorik gabeko erakundeak direla eta merkataritzako sozietateak, berriz, irabazi-asmoa daukatenak. Horrela, bi erakunde-mota hauen arteko bereizketa irabazi-asmoa izatean ala ez izatean datza nagusiki.

Pentsamendu hori gizartearen oso errotuta dagoen zerbait da. Baina maila juridikoan zuzena ote den baieztatu ahal izateko, zenbait xehetasun argitu beharra dago. Gainera, argitasun hauetan apur bat sakontzea ezinbestekoa iruditzen zaigu irabazi-asmoa zuzenbideko agenteek luzaroan aintzat hartu izan duten moduagatik. Denok dugu gogoan, denbora askoan irabazi-asmoa zuzenbidean ezarritako erakunde eta forma juridiko zahatz batzuren funtsezko ukanbehar bezala hartua izan dela. Baina garai batean sona handikoa izan arren, ideia hau eta berak eragindako oihartzuna behingoz deuseztatu beharra dauzkagu, aztertu nahi dugun errealitatea, hau da, gizarte-enpresa, modu egokian definitu ahal izateko, benetan dagozkion mugarriak ezarriaz.

Esan bezala, gizarte-enpresak oro har erakundeak dira, hau da, pertsona juridikoak, batzuk sozietate izaeradunak, beste batzuk berriz ez, baina bai pertsona juridikoak. Zehaztu beharra dago, ikuspegi juridikotik ezerk ez duela enpresa hauentzat banakako enpresariaren formula erabiltzerik galarazten. Baina, beste enpresekin gertatzen denaren antzera, ohikoena da pertsona juridikoaren formulak eskaintzen duen babes bilatzea. Gauza da, enpresen jarduerak burutzeko zenbait inbertsio egin behar izaten direla pertsona bakar batek egiterik ez dituenak edota pertsona-talde baten lan-kidetza behar izaten dela jarduera horiek burutu ahal izateko. Horri gehitu behar zaio, gainera, jardueraren gaineko arrisku ekonomikoa eta enpresa-

riek arrisku hori mugatzeko duten interesa. Arrazoi hauek eta beste batzuk medio, esan bezala, gizarte-enpresak erakunde moduan eratzen dira, pertsona juridiko formaren bat hartuaz. Hori da formularik arruntena.

Bestalde, erakunde izateaz gain, merkataritzako enpresak ez bezala, gizarte-enpresak irabazi-asmorik gabeko erakundeak direnaren ideia da nagusi. Gizartean oso zabaldua dagoen pentsamendua da hau. Hori dela eta, zuzenbidean araututa dauden erakunde-mota desberdinak aztertuko ditugu ondoren, beren kalifikazio juridikoan irabazi-asmoak zer nolako eragina duen ikusiaz.

3.1. *Sozietate-mota desberdinak*

Aipatu bezala, oso normala da pentsatzea gizarte-enpresak irabazi-asmorik gabeko erakundeak direla eta merkataritzako sozietateak, berriz, irabazi-asmoa daukatenak. Baina hau ez da benetan horrela. Batetik, ikusi egin beharko litzateke gizarte-enpresa iruditzen zaizkigun asko irabazi-asmorik gabekoak ote diren (ad. sozietate kooperatiboa edota sozietate anonimo laborala). Bestetik, kontuan izan behar da merkataritzako sozietateak eratzeke forma juridiko edo aukera desberdinak daudela eta, edozein kasutan, irabazi-asmoa izatea ez dela forma horiek galdatzen duten elementua. Azken ideia hau ez da inolako nobedadea merkataritza-zuzenbidearen alorreko doktrina eta jurisprudenzia-erantzak, baina badirudi ez dela oso ezaguna gizartean. Horregatik, iritzi publikoan dagoen pentsamendua ikusita eta gaur egun gizarte-enpresen gaiak duen garrantzia dela eta, zenbait ideia argitzea eta juridikoki zehaztea komeni dela uste dugu.

Egia da, espainiar zuzenbidean, bai Kode Zibilean bai eta Merkataritza Kodean ere, irabazi-asmoaren aipamena egiten dela sozietatearen figura definitzerakoan. Horregatik tradizionalki luzaroan «*irabaziak euren artean banatzeko asmoa*» (Kode Zibila 1665 art.) edo «*irabaziak lortzeko*» asmoa (Merkataritza Kodea 116 art.) sozietate-kontratuaren funtsezko elementua kontsideratu izan da. Baina xx. mendeko erdialdean, irabazi-asmoaren funtsezkotasuna ukatzen zuen ikuspegia sortu zen (GIRÓN, 1976: 25, FERNÁNDEZ DE LA GÁNDARA, 1977: 291). Hala ere badirudi ideia honek, oraindik ere, gure gizartean ez duela merkataritzako doktrina eta jurisprudenzian izan duen onarpen zabalik jaso, adituak ez direnen artean ezaguna ez delako ziurrenez. Horregatik, aldizkari hau bezalako foroetan behintzat, aditzera ematea zinez komenigarria dela uste dugu.

Irabazi-asmoa sozietate-kontratuaren funtsezko elementua dela ukatzen duen ikuspegi berritzaileari *sozietatearen kontzeptu zabala* esaten zaio. Sozietatearen kontzeptu tradizionala edo *kontzeptu hertsia* izan denarentzat, ordea, irabazi-asmorik gabe ez dago sozietate-kontraturik, hau funtsezko

elementua da. Baina, planteamendu hertsia honekin, sozietate-izaeratik kanpo geratzen ziren sozietate-itxurako figura ugari, esate baterako, elkar-teak (*asociaciones*), kooperatibak edota aseguru-mutuak, besteak beste, eta horrek zenbait problema ekartzen zituen. Egoera horiei konponbidea emateko sortu zen *sozietatearen kontzeptu zabala* deiturikoa.

Irabazi-asmoa izatearen arabera, sozietatea bai ala sozietatea ez, bereizketa egitearen arrazoi nagusia testuinguru historikoan aurkitzen da. Historian urrutira jo ezkerero, *societas* erromatarrean ez dugu irabazi-asmoaren elementurik ikusiko. Bai ordea, hurbilago jo ezkerero. XIX. mendean, frantziar Kode Zibilaren eraginez («Napoleonen Kodea» 1804), espainiar legegileak sozietateak arautzeko izaera bikoitzeko sistema eraiki zuen, sozietateak izan zitezkeen fenomenuen artean bi multzo bereiztuaz: alde batean «sozietateak» eta bestean «elkar-teak». Azken hauek gobernuaren kontrolpean jarri ziren eta bereziketa hori egiteko irabazi-asmoa izatea ala ez izatea hartu zen irizpide moduan. Horrela, irabazi-asmoa izan ordez beste asmo batzuk zituzten sozietateak («elkar-teak» deiturikoak), adibidez helburu politikoak zituztenak, kontrolpean izatea nahi zen, nolabait estatuko boterearentzat arriskutsuak izan zitezkelako. Aldiz, irabazi-asmoa zuten sozietateak («sozietateak» deiturikoak) kontrol horretatik aske utzi ziren botere publikoentzat kaltegarriak ez ziruditelako.

Gaurko egunean, ordea, panorama aldatu egin da. Espainiar Konstituzioan (1978) elkartzeko eskubidea aitortzen da (22 art.) eta, ondorioz, irabazi-asmoa izatearen arabera sozietateak eta elkar-teak bereizten dituen sistema honek ez dauka zentzurik. Beste modu batean esanda, bereizketa hori egitera bultzatu zuen behar historiko hura desagertu egin da (AGUIAR eta ELVIRA, 1997: 609, GÓMEZ MONTORO, 2004: 133, PAZ-ARES eta ALFARO, 2003: 6020). Hala ere, zoritxarrez, gaur egun alferrikakoa den bereizketa horrek irauten du ordenamendu juridikoan, formalki bai behintzat. Horren adierazle da 1/2002 Lege Organikoa, Elkartze-eskubidea arautzen duena. Lege honek elkar-teak arautzen ditu zentzu hertsian, hau da, irabazi-asmorik ez eta interes publikoko helburuak dituztenak soilik kontsideratzen ditu «elkar-teak». Bere eremutik kanpo uzten ditu «sozietateak», agrupazio mutualistikoak (kooperatibak, aseguru-mutuak eta gizarte-aurrikuspeneko mutualitateak), ondasun-erkidegoak eta zuzenbide publikoko korporazioak.

Hala ere, elkar-teak gaineko lege organiko hau egoteak ez digu pentsarazi behar sozietateak eratzeke (sozietate zibilak nahiz merkantilak) irabazi-asmoa izatearen elementua beharrezkoa denik. Ideia honen adierazle diren hainbat seinale aurkitzen dugu zuzenbide pribatuan. Lehenengo seinalea Kode Zibilean bertan daukagu. 1665 artikulua sozietatea definitzerakoan irabazi-asmoa aipatu arren, 1666 artikuluan sozietatearen ukanbeharrak xedatzerakoan helburu zilegia izatea eta sozietatea bazkide guztien interesarako ezartzea galdatzen da, irabazi-asmorik aipatu gabe.

Kapitaldun Sozietateen Legean (1/2010 E.D.Legegilea) ere badira beste seinale esanguratsu batzuk. Lehenik eta behin esan beharra dago lege honek ez duela irabazi-asmorik galdatzen sozietate-mota hauek eratzeko (2 art.), alegia, sozietate anonimoa eta erantzukizun mugatuko sozietatea eratzeko. Beraz, irabazi-asmoa izatea sozietate-mota hauetarako beharrezkoa ez bada, ora har, sozietateak eratzeko ere beharrezkoa ez denaren seinale da. Gainera, irabazi-asmorik ez izatea ez da kapitaldun sozietateen deuseztapeneke kausa (56 art.). Azkenik aipatu behar dugu ere lege honek kapitaldun sozietate irregularrentzat ezartzen duen erregelara. Honek dio, eratu zirenetik urtebete iragan ostean Merkataritzako Erregistroan inskribatu gabe dirauten sozietateei inperatiboki sozietate zibilaren araudia ezarriko zaiela, bere objektua zibila bada, eta sozietate kolektiboaren araudia, bere objektua merkantila denean, irabazi-asmorik ba ote duten ala ez ikuskatu gabe (39 art.).

Baina irabazi-asmoa sozietatearen funtsezko elementua ez denaren seinalerik garbiena Interes Ekonomikodun Agrupazioen Legean agertzen da (12/1991 Legea). Hemen legegileak expresuki hala adierazten du: «*La Agrupación de Interés Económico no tiene ánimo de lucro para sí misma*» (2.2 art.). Esaldi irmo honekin lege honek inflexio-puntu bat ekarri zuen doktrinan eta jurisprudentzian irabazi-asmoa eta sozietate-kontzeptuari dagokionez.

Ondorioz, behingoz onartu beharra dago irabazi-asmoa ez dela sozietatearen oinarritzko elementua, askok hala pentsatu arren. Egia da sarritan agertzen den elementua dela, baina ez da sozietate-kontzeptuaren funtsezko ezaugarria. Horixe da, hain zuzen, zuzenbide pribatuaren irakurketa sistematikoa eginaz erauzten den ondorioa eta beraz, legediko zenbait artikuluren irakurketa literal hutsa egitea baztertu beharra dago (Kode Zibileko 1665 art. eta Merkataritza Kodeko 116 art.). Irakurketa literal horrek ondorio desegokiak ekartzen ditu, sozietate-kontzeptutik kanpo uzten bait ditu sozietate-izaera duten hainbat eta hainbat fenomeno. Horien inguruan arazoak sortzen direnean irtenbide bat emateko, hau da, beharrezkoa denean fenomeno asoziatibo horiei subsidiarioki sozietateen arauak aplikatu ahal izateko, irabazi-asmoaren esanahia artifizialki geroz eta zabalago egitearen joera ere izan da (DE LA CUESTA eta DE LOS RÍOS, 2013: 145). Baina horrela ibili beharrean, behingoz sozietateen zuzenbidearen irakurketa sistematikoa egin eta *sozietatearen kontzeptu zabala* onartu beharra dago. Horrek esan nahi du, ikuspegi zabal horretatik abiatuaz, sozietate-kontzeptuak bere barne hartzen dituela hainbat eta hainbat figura juridiko, baita «elkarteak» deituriko horiek ere.

Gauzak horrela, gaur egun, sozietateen eremu zabal horretan beste be-
reizketa edo sailkapen bat nagusitzen da, irabazi-asmoaren irizpidearen ordez, erakunde-egitura irizpide hartzen duena. Horrela, erakunde-mota desberdinen egituraren oinarritutako sailkapenari so eginez (PAZ-ARES,

2006: 524) bi multzo bereizten dira: batetik, egitura pertsonalista duten sozietateak eta, bestetik, egitura korporatiboa dutenak.

Egitura pertsonalista duten sozietateak, hots, lotura pertsonal hestuan oinarritzen direnak, honako forma sozial hauek dira:

- kode Zibileko sozietatea (Kode Zibila 1665 art.)
- sozietate kolektiboa (Mertaritzako Kodea 125 art.)
- sozietate komanditario sinplea (Merkataritzako Kodea 145 art.)
- partaidetza kontuak (Merkataritzako Kodea 239 art.)
- aldi baterako enpresa-batzeak (18/1982 Legea)
- interes ekonomikodun agrupazioa (12/199 Legea, CEE 2137/85 Erreklamendua).

Sozietate-mota hauetan, kontratuan aldaketarik egin nahi bada, kide guztien adostasuna behar da, kudeaketan guztiak har dezakete parte eta sozietatearen zorren gaineko erantukizun subsidiarioa dute.

Egitura korporatiboa duten sozietateak, berriz, honako beste forma sozial hauek dira:

- elkarte (1/2002 Lege Organikoa)
- sozietate anonimoa (1/2010 ED Legegilea)
- erantzukizun mugatuko sozietatea (1/2010 ED Legegilea)
- akziozko sozietate komanditarioa (Merkataritzako Kodea 151 art.)
- sozietate kooperatibak (27/1999 Legea)
- elkar bermerako sozietateak (1/1994 Legea)
- laguntzaroko aseguru sozietateak edo mutuak (30/1995 Legea).

Egitura korporatiboa duten sozietate hauetan garrantzia duena taldea da eta ez bera osatzen duten bazkideak. Horregatik bereizi egiten dira bazkideak eta sozietatearen antolaketa. Hauen funtzionamendua sozietateko organoen bitartez bideratzen da, aldaketak gehiengoz erabakitzen dira eta bazkideek ez dute sozietatearen zorren gaineko erantzukizun pertsonalik.

Horrela ba, ikus daiteken bezala, sozietate-forma guzti hauekin zuzenbideak aukera desberdin ugari eskaintzen du enpresak sortzeko eta, nola ez, baita gizarte-enpresak sortzeko ere, sozietate-forma horiek eratzeko irabazi-asmoa izatea ez bait da beharrezkoa. Orain arte esan ez badugu ere, irabazi-asmoa aipatzerakoan *irabazi-asmo subjektiboa* deiturikoaz ari gara noski, hau da, irabaziak *banatzeko* asmoaz eta inolaz ere ez *irabazi-asmo objektiboaz* edo irabaziak *lortzeko* asmoaz. Azken hau izatea ezinbestekoa da edozein erakunde modu egonkorrean iraun dezan, baita erakunde hori altruista edo irabazi-asmorik gabekoa bada ere (PAZ-ARES, 2007: 150). Irabazi-asmorik gabeko erakundetaz mintzatzen garenean irabaziak partaiden artean banatzen ez dituzten erakundetaz ari gara, beraz.

Sozietate-kontzeptua eta irabazi-asmoaren inguruko xehetasun tekniko eta juridiko guzti hauek azaltzea komenigarria iruditu zaigu, argi gera dadin gizarte-enpresek ez dutela zertan soilik forma juridiko zehatz batzuk erabiltzera mugatuta geratu behar, iritzi publikoan ideia hori oso zabalduta egon arren. Are gehiago, alderantziz, gerta daiteke tradizionalki zalantzarik gabe gure ustetan gizarte-enpresak kontsideratu izan direnak (adibidez, kooperatibak edota sozietate anonimo laboralak) irabazi asmoa izatea, hau da, irabaziak bazkideen artean banatzeko asmoa. Horrek kasuz kasu egoera bakoitza aztertzea eskatzen du, forma juridikoa edozein izanda ere. Askorentzat harrigarria bada ere, jakin behar da kapitaldun sozietate-formako enpresak gizarte-enpresak izan ditezkeela, irabazi asmorik gabekoak izan daitezkelako. Beren estatutuek lasai asko ezar dezakete irabaziak bazkideen artean banatu beharrean objektu sozialaren garapenean inbertituko direla. Alde horretatik, juridikoki, ez dago inolako arazorik. Posible da.

3.2. *Sozietateak ez diren beste erakunde batzuk*

Azaldu dugun bezala, sozietate-kontzeptua bateratzearen inguruan eztabaida luzea egon da, baina esan beharra dago iritzi guztietako autoreak eta jurisprudentzia ere bat datozela sozietate-kontzeptuaren gutxienezko ukanbehar batzurekin (PAZ ARES, 2006: 470). Sozietateak izan beharreko gutxienezko elementu horiek hauetxek dira: 1) jatorri negoziatua, hau da, kontratu bidez sortzea; 2) helburu komun bat izatea eta 3) bazkide guztiek ekarpena egitea, hau da, helburu hori burutzeko bazkideen lankidetzaren elkartzea. Beraz, erabateko adostasuna dago hiru elementu hauek uztartzen ez dituen erakundea sozietatea ez dela esateko.

Ukanbehar hauek aintzat harturik, aipatzekoa da enpresa moduan, eta gizarte-enpresa moduan, jarduten duten edo jardun dezaketen zenbait erakundek ez dutela sozietate izaerarik, nahiz eta batzutan hala iruditu. Badira zenbait figura juridiko, enpresa-jarduerak burutzeko erabiliak izan arren, sozietate kontzeptutik at geratzen direnak hiru elementuak biltzen ez dituztelako. Horien artean daude:

- zuzenbide publikoko korporazioak
- fundazioak
- ondasun-erkidegoak.

Zuzenbide publikoko korporazioak dira estatua, autonomia-erkidegoa, udala, unibertsitateak, merkataritza-ganbarak, profesionalen elkargoak, e.a. Erakunde hauek gizarteko sektore batzuren interesak ordezkatzen dituzte eta sektore horien inguruko zenbait funtzio publiko ere burutzen dituzte. Horregatik esaten da erakunde hauen izaera bikoitza dela, pribatua

eta publikoa. Batetik, izaera pribatua dutela esaten da, beren helburua kolektibitate zahatz baten interesak ordezkatu eta defendatzea delako. Baina bestetik, izaera publikoa ere atzematen zaie zenbait funtzio publiko eta administratibo burutzen dituztelako (PAZ-ARES eta ALFARO, 2002: 5971). Edozein kasutan, sorrera negoziatuaren elementurik ez izateagatik sozietate-kontzeptutik kanpo geratu arren, nortasun juridikoa aitortzen zaie legez Kode Zibileko 35 artikuluan.

Bestalde, fundazioek ere, sozietate izaerarik izan ez arren, nortasun juridikoa dute (Kode Zibila, 35 art.) eta oso erabiliak dira enpresa munduan, bereziki gizarte-enpresatan, *hirugarren sektorea* deiturikoan. Fundazioak ez dira pertsona-taldeak. Bertan pertsonak elkartu arren ere, hori ez da beren ezaugarri bat. Zuzenbidearentzat irabazi-asmorik ez duten erakundeak dira, ondare bat modu iraunkorrean interes orokorreko helbururen bat lortzeari loturik daukatenak (50/2002 Legea, abenduaren 26koa, fundazioena, FL, 2.1 art.). Egia da fundazioek sozietateekin antzekotasun handiak dituztela eta Fundazioen Legeak sozietateen antzekoak diren arau mordo bat dituela (ik. FL 24, 25 eta 26 art.). Horrek bien oinarria berbera dela eta, ondorioz, sozietateen arauak analogiaz aplikatzea posible dela pentsarazi dezake (Kode Zibila 4.1 art.). Baina zuzenbide pribatuan fundazioak sozietateen zuzenbidetik at geratzen dira. Beren araudi propioa daukate. Hori da benetako egoera. Hala ere, esan beharra dago, erakunde hauek enpresa moduan gizartean duten garrantzi handia ikusirik, zenbaitzuk aspalditik ari direla sozietateen zuzenbidean harrera egiteko komenigarritasuna aldarrikatzen (PAZ-ARES, 1991b: 1301; VICENT, 2002: 211; EMBID, 2003: 79-100).

Azkenik, ondasun-erkidegoak ditugu. Hau ere enpresak sortzeko erabili ohi den beste figura juridiko bat da eta ez da sozietatea. Baina, aurreko biek ez bezala, honek ez dauka nortasun juridikorik (Kode Zibila, 35 art.). Sozietatea eta ondasun-erkidegoa ez dira bi kategoria juridiko antzekoak eta, beraz, ez lukete arazorik planteatu behar. Egia da bi figura hauek arautzen dituzten erregelek talde bat osatzen duten pertsonen arteko harremanak arautzen dituztela. Baina ez dezagun ahaztu bi erakunde hauen izaera juridikoa oso bestelakoa dela. Sozietatea kontratu bat da (Kode Zibila, 1665 art.) eta ondasun-erkidegoa, berriz, jabetzaren titulartasuna izateko modu bat, titulartasun kolektiboa adierazten duena (Kode Zibila, 392 art.). Hala ere denok dakigu kolektiboki antolatutako enpresa ugarik ondasun-erkidego forma hartzen duela.

Horrela ba, aipaturiko hiru figura juridiko hauek enpresak eta gizarte-enpresak sortzeko erabiliak izan arren, ez dute sozietate izaerarik. Ez da inongo albistea hauek sozietateak ez direla esatea. Baina beren izaera desberdin hori azpimarratu nahi izan dugu, sozietateen zuzenbidetik at geratzen direla argi gera dadin. Horrek, azken finean, zera esan nahi du, figura

horien azpian elkartutako pertsonak beren harremanak zuzentzeko erabaki ez duten gaitan ezin izango dela subsidiarioki sozietateen legedirik aplikatu. Horixe da ondorioa, hain zuzen, korporazio, fundazio eta ondasun-erkidegoentzako. Dena den, azken honen inguruan, hau da, ondasun-erkidegoaren kasuan, sortzen den egoera desberdina da eta aipamen berezia merezi du.

Enpresak sortzerakoan ondasun-erkidegoaren forma hartzea oso zabaldua dagoen joera da. Hori dela eta zuzenbidearen atal batzuetan espresuki onartu ere egin da gainera, batez ere iruzurra ekiditearren (Ik. Langileen Estatutua 1.2 art. edota Ley 58/2003 General Tributaria, 35.4 art.). Baina esan beharra dago ondasun-erkidego moduan eraturako enpresak ez direla ondasun-erkidegoak sozietateak baizik (PAZ-ARES, 1991a: 493). Kasu horiek aipaturako sozietate kontzeptuaren oinarriko ezaugarriak dituzte. Pertsona batzuk elkartzen badira nortasun juridikoa duen sozietate baten antzera jarduteko, talde hori sozietatea izango da nahiz eta taldekideek ondasun-erkidegoa dela esan. Sozietatea eratzen da sozietate-kontratua egiten den momentutik (PAZ-ARES, 2006: 493) eta ez Merkataritzako Erregistroan inskripzioa egiten denetik. Taldearen edo sozietatearen inskripziorik ez egiteak ez du nortasun juridikoaren existentziarik galeratzen. Bere ondorioa beste bat da, inskripzio-ezak sozietatea «irregularra» izatea dakar. Horrek esan nahi du sozietate kolektiboaren arauak aplikatuko zaizkiola (Kapitaldun Sozietateen Legea, 1/2010 E.D. Legegilea, 39 art.). Horrela, sozietate batekin kontratu egiten ari zena ustea izan duen fede oneko hirugarrena babestuta geratzen da. Hau da, gaur egun, Auzitegi Gorenaren interpretazioa (TS, 1995 eta 1998) eta baita Dirección General de los Registros y del Notariado delakoarena ere (DGRN, 2001).

Luzaroan beste interpretazio bat egin izan da egoera honen inguruan. Esaten zen sozietatea jaiotzen zela Merkataritzako Erregistroan inskripzioa egitearekin batera, inskripzioak efektu eratzailea zuelako (Merkataritzako Kodea 119 art.). Baina interpretazio horrek ondorio ezezkorak ekaritzen zituen sozietate-itxura izanik inskribatu gabe zegoen erakundearekin fede onez kontratu egiten zuen hirugarrenarentzat. Batetik, sozietatearekin egindako kontratuak deusezak ziren (Merkataritza Kodea 118 art.). Bestetik, kontratu horien erantzule bakarrak momentuko kudeatzaileak ziren (Merkataritza Kodea 120 art.) eta ez sozietatea bera ezta bazkideak ere. Beraz, itxura juridikoan konfiantza jarri eta uste onez sozietatearekin kontratu egiten zuen hirugarrena babestu beharrean, sozietatea behar bezala inskribatu ez zutenak babesten ziren. Ondorio guztiz ezezkor hauek galarazteko, merkataritzako zuzenbidearen doktrinak eta jurisprudenziak ares-tian aipatu den interpretazio berritzailea proposatu zuten eta hori da gailendu dena.

4. Legezko eredu baten bila

Aurrean azaldu ditugun formula guzti horiek erabilgarriak dira gizarte-enpresak sortzeko. Esan bezala, espainiar zuzenbidean gizarte-enpresak eratzeko formula zehatz bakar bat ez dago. Hala ere, hauentzako legezko eredu bat ezartzearen aldeko zenbait hurbilketa atzeman ditugu azken urteotan. Hurbilketa hauek testuinguru desberdinetan gauzatu dira eta baikoitzaren ibilbidea eta ondorioak ere desberdinak izan dira. Banan bana aztertuko ditugu ondoren.

4.1. *Menpekotasuneko Legearen ekarpena*

Lehen urratsa kokatzeko 39/2006 Legea, Menpekotasuneko Legea deiturikoa, aipatuko dugu (*Ley 29/2006, de 14 de diciembre, de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia*). Bere 2.8 artikuluan, hirugarren sektorea osatzen duten enpresak definitzen ditu, hainbat baldintza aipatuaz, hots: hiritar edo gizarte-ekimenetik sortutako erakunde pribatuak dira, solidaritatezko irizpideekin jokatzeko dutenak, interes orokorreko helburuekin, irabazi-asmorik gabe eta eskubide sozialak baliatzea eta aitortzea bultzatzen dutenak. Ondorioz, definizio honetatik at geratzen dira beren araudi edo estatutueta elementu horiek jaso ez dituzten erakundeak, bereziki bi elementu ez dituztenak: irabazi-asmorik eza eta interes orokorreko helburuak.

Batzuren ustez, horrela definitutako hirugarren sektorearen legezko kontzeptu honetan sartzen dira soilik fundazioak eta interes orokorreko elkarteak (FAJARDO, 2012: 66). Bi figura juridiko horiek definizioaren barnean geratzen direla argi dago. Hain zuzen, 50/2002 Legeak, Fundazioen Legeak, bere 3. artikuluan dio hauek interes orokorreko helburuak izan behar dituztela. Bestalde, Elkarteen Legeak esaten du elkarteek interes partikularreko eta interes orokorreko helburuak izan ditzaketela eta helburu horiek beren estatutueta deskribatuko direla (1/2002 Lege Organikoa, 5 eta 7 art.).

Baina lan honetan oinarritzat hartu dugun sozietate-kontzeptu zabalari so eginez, gure iritzia oso bestelakoa da. Aipatu ditugun legez ezarritako baldintzak direla eta, fundazioak eta interes orokorreko elkarteak eremu honetan erabilpen handiko figurak izango direnaren zalantzarik ez daukagu. Baina, horiez gain, beste edozein sozietate-motak ere hirugarren sektorean jardun dezakela argi utzi nahi dugu, kapitaldun sozietateak barne, beti ere legez ezarritako baldintza horiek bete ezker. Lan honen aurreko atalean azaldu dugun bezala, irabazi-asmoa alde batera utzi eta bestelako edozein helburu zilegi (adibidez, interes orokorreko helburuak) lortzeko,

zuzenbidean araututa dagoen edozein sozietate-forma erabiltzeko aukera dago. Aukera hori posible da, erabat, eta horretarako ez dago inolako oztopo juridikorik, ezta lege honen aplikazioari dagokionez ere.

Esan beharra dago Menpekotasuneko Legearen helburu eta zioak beste batzuk izan arren, gai honek gizarte-ekonomiarekin edo hirugarren sektorearekin duen loturagatik, legeak gizarte-enpresen definizioan aurrera pauso esanguratsu bat eman zuela. Hala ere, aitortu beharra dago lehen urratsa izan zela, txarra ez, baina hobetu beharrekoa eta bat gatzoz zenbaitzuren iritzi kritikoeekin hirugarren sektorea definitzeko izan duen moduagatik. Legearen definizioa doktrinak erabili ohi duena baino hertsiagoa da. Oro har, hirugarren sektorea irabazi-asmorik gabeko sektorearekin parekatzeko joera dago (*non profit sector*), modu nahiko zabal edo irekian (LEVITT, 1973; CHAVEZ eta MONZÓN, 2001: 11; MONZÓN, 2006: 11). Baina lege honek, ordea, hirugarren sektorearen mugak ezartzerakoan baldintza ugari ipini ditu, bere eremua nabarmen murriztuaz. Dena den, aitortu behar da ere hirugarren sektorea delakoaren kontzeptua eta bere mugak oraindik irekita dagoen eztabaidarako gaia izaten jarraitzen duela. Eztabaida horretan, gaur egungo gizarte eta ekonomiarentzat kontzeptu bateratu baten alde egiteko komenigarritasuna eta beharra aldarrikatzen dira hainbaten aldetatik (JIMÉNEZ eta MORALES, 2008: 85).

4.2. *Lege berezia: Gizarte-Ekonomiaren Legea*

Gizarte-enpresentzat legezko eredu bat ezartzearen aldeko hurrengo urratsa eta agian garrantzitsuena 5/2011 Legea, Gizarte-Ekonomiaren Legea, izan zen noski, gaiari buruzko lege berezia izanik (*Ley 5/2011, de 29 de marzo de economía social*). Baina hasieratik esango dugu urratsa garrantzitsua izan arren, kritikagarria ere badela. Hasteko, deigarria da lege honetan irabazi-asmoa expresuki aipatu ere ez egitea. Horrela, gizarte-ekonomia ez da irabazi-asmorik gabeko sektorea izatearekin parekatzen, izaera konplexuagoa ematen zaio, modu nahiko korapilotsuan definituaz.

Gizarte-ekonomia definitzeko 2. artikulua dio hura osatzen dutela eremu pribatuan burutzen diren jarduera ekonomiko eta enpresarialek, beren kideen interes kolektiboa, interes orokor ekonomikoa edo soziala edota biak lortzeko helburua dutenak, beti ere 4. artikuluan jasotako printzipioekin bat eginez. Ondoren, 4. artikuluan definitzen dira gizarte-ekonomiako erakundeek errespetatu beharreko printzipio gidariak, baina modu nahiko konplexuan formulatuta. Hain zuzen, formulazio hori kritikatu izan da bere edukiaren nahasmenagatik (FAJARDO, 2012: 74), baina baita ere nazioarte mailan nahiz Europa mailan gizarte-ekonomiaz ardura-

tzen diren erakundeen printzipio eta formulaziotatik aldendu izanagatik (CNLAMCA, 1980; ICA, 1995).

Bestalde, printzipio gidari horien alboan, legearen arabera gizarte-ekonomiaren eremua gehiago zehazteko, 5. artikuluan gizarte-ekonomia-koak diren erakundeen zerrenda jasotzen da. Hala, legez gizarte-ekonomia-koak dira:

- kooperatibak
- mutualitateak
- jarduera ekonomikoa burutzen duten fundazioak
- jarduera ekonomikoa burutzen duten elkarteak
- sozietate laboralak
- laneratzeko enpresak (*empresas de inserción*)
- enpleguzko zentru bereziak
- arrantza-kofradiak
- transformazioko nekazal sozietateak.

Harritzekoa bada ere, zerrenda honetako erakundeen kasuan, legeak ez du 4. artikuluko printzipioak errespetatzen ote dituzten ikuskatzerik galdetzen. Forma juridiko horiek dituzten erakundeek irizpide horiek betetzen dituztenaren zuzenbidezko presuntzioa ezartzen du. Printzipioak bete behar diren galdakizuna zerrendan aipatzen ez diren bestelako forma juridikoak dituzten erakundeei zuzendua dago, hauek gizarte-ekonomiako izaerarekin kalifikatuak izatea nahi badute (5/2011 Legea, 5.2 art.). Kasu horietarako aurreikusten da gizarte-ekonomiako erakundeen katalogoa (5/2011 Legea, 6. art.), estatuko Lan Ministeritzak Autonomia-Erkidegoen lankidetzarekin osatuko duena eta eguneratua mantendu. Gauzak horrela izanik, 5. artikuluko honek ere jaso ditu bere kritikak.

Ikusten den moduan, legez gizarte-ekonomiakoak diren erakundeen zerrenda nahiko luzea da eta bertan era askotako erakundeak aurkitzen dira. Baina kritikatu izan da forma juridiko zehatz bat izateak ez duelako legez ezarritako printzipioak beteko direnaren inolako bermerik ematen. Ondorioz, zera gertatzen da: zerrendan egon beharreko guztiak ez egotea eta egon beharko ez luketen batzuk egotea. Ildo honetatik, adibidez, legearen tramitazio parlamentarioan, Talde Mixtoak zenbait erakunde zerrendatik kentzea eskatu zuen, hots, mutualitateak, fundazioak eta jarduera ekonomikoa burutzen duten elkarteak, historian zehar erakunde hauek ez dutelako gizarte-ekonomia antolatu eta bultzatzeko ahaleginetan jardun (PADILLA, 2011: 134). Beste batzuek, berriz, zerrendako erakunde guzti horiei ere legezko printzipioak betetzea galdatu egin behar zaiela aldarrikatzen dute (PANIAGUA, 2011: 149).

Gure ustez, gizarte-enpresak kalifikatzeko irizpidea forma juridikoa izatea ezin da onartu, hori ez da irizpide egokia, ekar ditzaken ondorio ezez-

korrengatik. Errealitatea kasuz kasu aztertu ezker, ikusiko genuke zerranda horretako zenbait erakunde gizarte-ekonomiatik kanpo kokatzearen beharra legearen printzipioak betetezen ez dituztelako eta, aldiz, usu merkataritzakoak kontsideratzen diren beste sozietate-mota batzuek gizarte-ekonomiaren eremuan kokatzeko komenigarritasuna bere printzipio gidariak errespetatzeagatik (DEFOURNY eta MONZÓN, 1992: 203). Gai honetan, beste askotan gertatzen denaren antzera, azken finean, garrantzitsuena printzipioak dira eta ez forma.

4.3. *Europar Batasuneko eredu*

Laburbilduz esan daiteke, oraingoz behintzat, Espainian ez dela gizarte-enpresarentzako legezko eredu sendorik ezarri. Horrenganako hurbilketa batzuk egin dira hirugarren sektorea eta gizarte-ekonomia direla eta, arestian aipatu ditugunak. Baina ez da gizarte-enpresaren eredurik finkatu estatuko barne zuzenbidearen aldetik. Legegileak ez du kategoria hori definitu eta garatu, nahiz eta gizartean oro har gizarte-enpresak irabazi-asmorik gabeko erakundeak direnaren ideia oso zabaldua dagoen. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, Europar Batasuneko zuzenbidean eta kontuan izan behar dugu horrek eragin zuzena daukala guregan, nahi eta nahi ez. Hor bada urtetan landutako ikuspegi bat hirugarren sektorea edo irabazi-asmorik gabeko sektorea gizarte-ekonomian kokatzen duena (CHAVEZ eta MONZÓN, 2001:11; ARGUDO, 2002: 248) eta horren gainean oinarritzko erreferentzia sendo bat eratu izan da, jada arau bidezko garapena ere izaten hasi dena.

Oinarritzko erreferentzia hori Komisio Europarraren ekimenean kokatzen da (COMISIÓN EUROPEA, 2011), bertan ezarri bait dira gizarte-enpresa deiturikoa definitzen duten ezaugarriak. Honako hauek dira: 1) enpresaren jarduera ekonomikoaren helburua interes orokorreko helburu soziala izatea, sarritan gizarte-berrikuntza ekartzen duena; 2) enpresaren mozkinak nagusiki berriz helburu horretan inbertitzea eta 3) enpresaren antolamendua eta jabetza gobernantza edo justizia soziala izatera zuzenduriko printzipio demokratikoetan oinarrituak izatea. Laburbilduz, ezaugarri hauen edukia hiru ardatzek osatzen dute: gizarte-helburua, mozkinen berrinbertsioa eta gobernantza (ENCISO, GÓMEZ URQUIJO eta MUGARRA, 2012: 71).

Dagoeneko, Komisio Europarraren 2011ko Ekimenean ereindako eskema honen hazia hasi da bere uzta ematen. Honekin esan nahi duguna da ekimen horretan finkatutako eredu berbera Erreglamendu batean jaso izan dela, gizarte-enpresagintzarako europar funtsei buruzko (UE) 346/2013 Erreglamenduan, hain zuzen. Erreglamendu hau, errentagarri-

tasun hutsa bilatu beharrea, gizarte-izaerako helburuak dituzten enpresetan inbertitzen duten funtsei zuzendua dago. Beraz, funts horiek inbertsioak egingo dituzten enpresak, hau da, gizarte-enpresak, definitzen dira bere 3.1.d. artikuluan, *ii, iii, iv* puntuetan (PARLAMENTO EUROPEO y CONSEJO, 2013). Gainera, bere zioen azalpenean (12. oinean) adierazten da artikulua horren oinarria zein izan den eta gizarte-enpresa edo gizarte-ekonomiako agentea definitzen da esandako hiru ardatz horiek euskarri hartuta. Hala, gizarte-enpresari zera galdatzen zaio: 1) bere helburu nagusia eragin soziala izatea eta ez irabaziak lortzea; 2) merkatuan ondasun eta/edo zerbitzuak eskainiz jardutea eta posibleak bere helburua lortzeko berrerabiltzea eta ez jabe edo bazkide direnen artean banatzea eta 3) kudeaketa arduratsua eta gardenen eramatea, bereziki enplegatua, kontsumitzaile eta enpresaren jardueran ekonomikoan interesa duten alderdiak aintzat hartuaz.

Hau ez da huskeria. Gogora dezagun europar Erreglamenduek aplikazio zuzena dutela Europar Batasuneko kide diren estatu guztietan, inolako arau nazionalik behar izan gabe. Erreglamenduan ezarritakoa zuzen zuzenean aplikatzen da, estatu barneko zuzenbidea bailitzan eta edonork eska dezake bere edukiaren babes judiziala, auzitegi nazional edo europarren aurrean. Beraz, hauxe da Europar Batasun osorako eredia, nahi eta nahi ez. Baldintza horiek betetzen ditzuzten enpresei, eta ez beste batzuei, zuzenduko zaizkie Europar Batasuneko laguntzak eta bestelako arau bereziak. Horregatik irizpide horiek kontuan ondo izatea inportantea da. Baina ez hori bakarrik, europar eredia hau baldin bada, hauxe izango da ere Europar Batasuneko estatu-kideen eredia edo, behintzat, horiek berdin berdinak ez badira ere, harekin bateragarriak izan beharko dute.

Patroi hau ez da berria, dagoeneko probatutako zerbait da. Konkreteki, britainiar gobernuak 2002an gizarte-enpresentzat eskema berean oinarritutako eredia jarri zuen abian, baina desberdintasun batekin, alegia, oinarritzko ezaugarriak hiru izan beharrea bi izanik. Britainiar eredia sinpleagoa da oraindik, bi baldintza bestetik ez du eskatzen gizarte-enpresentzako: 1) gizarte-helburuak izatea eta 2) posibleak, nagusiki, enpresan bertan edo gizartearen berrinbertitzea (UK GOVERNMENT, 2002: 13).

Gizarte-enpresa ezaugarri edo baldintza gutxi batzurekin definitzen duen eredu honek (britainiarrak nahiz europarrak) bere aplikaziorako abantaila edo erraztasun handiagoak eskaintzen ditu, Espainian egin izan diren aurreko saioekin alderatu ezker. Sistema honek duen malgutasuna da bere alde ona, era askotako enpresak barne hartzea ahalbidetzen duelako, beren forma juridikoa edozein izanda ere. Edozein enpresa gizarte-enpresatzat hartzeko ukanbeharrak finkatzen ditu eta horiek dira enpresari gizarte-izaera ematen diotenak, ez forma juridikoak (espainiako eredia, 5/2011 Legearena).

4.4. *Lege-egitasmo berri bat*

Amaitzeko, gai honen inguruan Cataluyan sortutako lege-ekimena komentatu nahi dugu, gizarte-enpresarentzat legezko eredu bat ezartzearen alde aurkezten dituen ekarpen berritzaileak direla eta. Hain zuzen, Talde Parlamentari Katalanak 2013ko urriaren 10ean Diputatuen Kongresuan honako lege-proposamen hau aurkeztu zuen: *Proposición de Ley de apoyo a las actividades de los emprendedores sociales* (GRUPO PARLAMENTARIO CATALÁN, 2013). Honen atzean hainbat erakunde, instituzio, enpresa, profesional eta adituen lana dago eta, bereziki UpSocial (www.upsocial.org) erakundearena, berak bideratu bait du guzti hauen arteko talde-lana azken urteotan. Ekimen horretatik sortutako xedetariko bat sozietate-mota berezi bat aurkeztea izan da, erantzukizun mugatuko sozietate berezi bat, aldaketa edo berezitasun batzuk dituen, hots, Interes Orokorreko Sozietate Mugatua (*Sociedad Limitada de Interés General, SLIG*).

Figura hauxe da Kongresuari proposatu zaionaren muina. Ekimena sustatu dutenen iritziz, figura honek aukera berri bat ekarriko lieke gizarte-enpresariei, beraientzako aproposagoa izango litzatekena, kapitalen merkatuan sartzeko egokiagoa eta zerga aldetik onurakorragoa. Argitu beharra dago proposamen honen helburua ez dela forma juridiko berri bat edo sozietate-mota berri bat sortzea izan. Izenak dion bezala, Kapitaleko Sozietateen Legean (1/2010 Legean) arautua dagoen Erantzukizun Mugatuko Sozietatea hartu du oinarritzat. Beraz, oro har, araudi hori izango litzaioke aplikagarri figura honi. Proposamen honen helburuak beste batzuk dira. Laburbilduz, bi helburu nagusi azpimarratu daitezke.

Alde batetik, sozietateek beren estatutuetan gizarte-izaeradun konpromezuak ezartzen dituztenean, hori hirugarrenei errazago ezagutarazi nahi da. Sozietateen estatutuetan jasotzen dira beren objektua eta printzipioak eta hauek interes orokorrekoak baldin badira Erantzukizun Mugatuko Sozietate arruntengandik bereiztu egiten direnaren ezaugarria nolabait erakusgarriagoa egitea nahi da. Uste da horrek merkatuan agertzeko beste itxura bat emango liokela sozietateari zenbait ate irekiaz, bereziki finantziarioa lortzeko horren beharrezkoa den kapitalen merkatuko atea.

Bestalde, gizarte-zereginetan jarduten duten enpresen zergentzako marko egokiago bat ere eraiki nahi da. Horretarako zenbait onura fiskal onartzea proposatzen da, beti ere irabazien banaketa mugatzearen ondorioz. Konkretuki, Interes Orokorreko Sozietate Mugatuaren bazkideei ekitaldi ekonomikoan lortutako mozkinen %30 bakarrik banatu ahal izatea proposatzen da. Gainontzeko %70 sozietatearen objektukoak diren gizarte-zereginetan inbertitu beharko da berriz. Banaketarako muga hauek ere sozietatearen estatutuetan jaso beharko dira, noski.

Ezaugarri hauekin, lege-proposamen honek Espainian orain arte gizarte-enpresen inguruan emandako urratsak baino europarragoa dela erakusten du. Esan daiteke, oro har, aurreko atalean aipatu ditugun Europar Batasuneko Ekimena (COMISIÓN EUROPEA, 2011) eta Erreglamendua (PARLAMENTO EUROPEO y CONSEJO, 2013) errespetatu egiten dituela, ildo nagusiak bai, behinik behin. Horren adierazle da, bereziki, mozkinen banaketa mugatzearen proposamena. Agian, bazkideen artean banatzea onartuko litzatekeen portzentaia, %30, eztabaidagarria izan daiteke, gutxi gora behera. Baina bada banaketarako muga bat eta horrek berebiziko garrantzia du. Espainiar legegileari gizarte-enpresak antzemateko irabazi-asmoa mugatzearen irizpidea proposatu zaio behingoz, horretarako oinarrizkoa den irizpidea, gizarte-enpresa eta gizarte erantzukizunaren arteko bereizketa egiten duena. Orain ikusi egin behar zertan geratzen den gauza.

Beste kontu bat da gizarte-enpresentzako figura berezia proposatzearen atala. Gai hau eztabaidagarriagoa egiten zaigu. Lege-proposameneko zioen azalpenean adierazten ez bada ere, bere aurrekarietan (UP-SOCIAL, 2013: 4) aldarrikatzen da enpresa eta gizarte-ekonomiaren arteko lotura erakusten duen figuraren bat izatea komenigarri litzatekela. Horregatik proposatzen da figura berezi bat: Interes Orokorreko Sozietate Mugatua. Horrek baditu bere abantailak gizarte-enpresarietzako nahiz hirugarrentzako, esandako lotura hori ikusgarri egiten duelako. Gainera, aipatzekoa da, horretarako, bide konplexu bat proposatu beharrean, bide erraza hartu duela egitasmo honek. Alegia, araudi berri eta berezirik sortu gabe, zuzenbidean araututa daudenen artean, aproposa eta oso erabilia den sozietate-mota bat oinarri hartu du hari zeinu berizgarri bat erantsiaz. Horrela, badirudi aipatutako arazoari konponbidea eman diola.

Baina ez dezagun pentsa hau panazea denik. Ez dugu uste horrela arazoak konpontzen dituenik edo, beste modu batean esanda, agian arazo bat konpondu nahian beste bat sortzen du. Ondorio ezezkor hori zein izan daiteken asmatzea ez da zaila. Legea bere horretan onartu ezker, gizarte-enpresa guztiek Interes Orokorreko Sozietate Mugatu forma hartu beharko al lukete nahitaez? Erantzuna ezezkoa da, noski. Hau zuzenbideak *ad hoc* gizarte-enpresak sortzeko eskaintzen den aukera bat besterik ez da, borondatezko aukera bat. Baina, badira beste aukera posible batzuk, *ad hoc* gizarte-enpresak sortzeko izan ez arren, horretarako ere erabili daitezkenak. Orduan, berriz ere lehengo egoerara itzultzen gara. Gogora dezagun forma juridikoak ez duela garrantzirik gizarte-enpresak kalifikatzerakoan, berdin duela. Hemen, garrantzitsuena ez da «kanpoko», «barrukoa» baizik. Forma juridikoa edozein izanda ere, jada araututa dagoen edozein, posible da estatutuetan interes orokorreko objektu soziala eta irabazien banaketa mugatua jasotzea, berdin berdinean (baita beste edozein pritzipio edo gizarte-galdakizun ere). Horretarako ez da forma berezirik behar eta, noski, argi

geratu behar du baldintza horiekin eratutako sozietateei gizarte-enpresa izaera aitortu egin behar zaiela, horrek dituen ondorio juridiko guztiekin, zergatarako onurak barne. Hauxe litzateke ondorioa, irabazi-asmorik gabeko sektorea edo hirugarren sektorea gizarte-ekonomian kokatzen duen europar ikuspegiaren arabera.

Lege-proposameneko zioen azalpenean esaten da badirela beste herrialde batzuk gizarte-enpresak eratzeko forma juridiko bereziak dituztenak, hala nola: *Benefit Corporation* eta *Low-Profit Limited Liability Company*, Estatu Batuetan; *Community Interest Company*, Erresuma Batuan edota *Impresa Sociale*, Italian (GRUPO PARLAMENTARIO CATALÁN, 2013: 2). Figura horien azterketa eta gonbaraketa egiteak hau ez den beste lan bat eskatuko luke. Baina ez nuke amaitu nahi Erresuma Batuari aipamenik egin gabe, batez ere, Europar Batasuneko erudian izan duen eraginagatik. Azpimarratu nahi dugu aipaturiko *Community Interest Company* berezi horiek izan arren, Erresuma Batuko Gobernuaren estrategiak gizarte-enpresak definitzerakoan ez diola enpresaren formari erreparatzen. Kalifikazio hori aitortzeko, bi baldintza galdatzen die enpresei: batetik, batez ere gizarte-helburuak izatea eta, bestetik, soberakinak nagusiki berriz enpresan edota gizartean inbertitzea, jabe edo bazkide direnen artean banatu beharrean.

A social enterprise is a business with primarily social objectives whose surpluses are principally reinvested for that purpose in the business or in the community, rather than being driven by the need to maximise profit for shareholders and owners (UK GOVERNMENT, 2002: 13).

5. Ondorioak

Gizarte-ekonomiako enpresek hainbat onura ekar dezakete gizartearentzat eta krisi ekonomikoari aurre egiteko irtenbide interesgarria eskaintzen dute. Beren ikuspegi soziala, eremu lokalean eta eskualde-mailako garapenean duten eragina eta langileek enpresaren kudeaketan duten parte-hartzea dira onura horiek sortzeko oinarriak. Hori dela eta, botere publikoen aldetik enpresa hauek laguntzeko ekimenak abian jartzen dira. Baina nola jakin zeintzuk diren ekimen horien onuradunak, hau da, gizarte-enpresak?

Bereizketa hori egiteko, forma juridikoaren irizpidea ez da egokia. Oro har, espainiar legegilearen aldetik egin diren saioetan irizpide hau nagusi izan arren, ez da benetan eraginkorra. Forma juridikoaren irizpidea aplikatzeak ondorio ezazkorrak ekartzen ditu. Hala, ahalbidetzen du beren ezauzgarriengatik gizarte-enpresa bezala kalifikatzerik merezi ez luketen zenbait

enpresak haiei ematen zaizkien abantailak baliatzea, forma juridiko zehatz batekin eratu izan direlako besterik gabe. Eta aldiz, beren ezaugarri eta jarduteko moduagatik gizarte-enpresa bezala kalifikatzea mereziko luketen beste batzuei abantaila horiek ukatu egiten zaizkie, tradizionalki gizarte-ekonomiakoak diren forma juridikotarikoren bat ez izateagatik.

Ondorio negatibo hauek ekiditearren, ezinbestekoa da gizarte-enpresak forma juridikoa ez den beste iripide batzurekin definitzea. Beraz, baliozko erreferentzia da enpresa hauen izaera osatzen duten baldintzak edo elementuak kontuan hartzea eta, horien artean, bereziki, irabazi-asmorik ez izatearren baldintza.

Azpimarratu behar da irabazi-asmoa ez dela, askok uste bezala, sozietate-izaera eta forma juridikoa erabakitzen duen elementua. Honek ez du forma juridikoan inolako eraginik. Aldiz, irabazi-asmoa erabat erabakiorra da erakunde bat gizarte-enpresa moduan kalifikatzeko. Horixe da, hain zuzen, europar ikuspegitik, gizarte-enpresa eta gizarte-erantzukizunez jokatzen duen enpresa arruntaren artean bereizteko elementu erabakiorra. Beraz, argi eta garbi esan beharra dago, gizarte-enpresak ez direla soilik Gizarte-Ekonomiako Legean agertzen direnak, gehiago dira. Aipatu ditugun forma juridiko anitz horiekin eratu daitezke gizarte-enpresak, beti ere irabazi-asmorik ez baldin badute.

Azken finean, lan honekin gizarte-enpresa definituko duen legezko eredu bat eraikitzeke garaia iritsi dela aditzera eman nahi izan dugu eta horretarako ezinbestekoak diren zenbait oinarri azaldu, beti ere europar ikuspegia kontuan izanik.

6. Bibliografia

- AGUIAR DE LUQUE, L. eta ELVIRA PERALES, A. (1997): «Artículo 22», en: ALZAGA, O. (coord.): *Comentarios a la Constitución Española de 1978*, Cortes Generales-Edersa, Madrid, tomo II.
- ARGUDO PÉRIZ, J.L. «Tercer Sector y Economía Social. Marco Teórico y situación actual», *Acciones e Investigaciones Sociales* 15, 2002, 239-263 orr.
- CHAVES ÁVILA, R. eta MONZÓN, CAMPOS, J.L. (2001): «Economía social y sector no lucrativo», en: CIRIEC-España, *Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa* 37, 7-35 orr.
- , (2007): *La Economía Social en la Unión Europea*. Informe elaborado por el CIRIEC para el Comité Económico y Social Europeo, CESE 97/2007 Gr. III.
- CNLAMCA, COMITÉ NATIONAL DE LIAISON DES ACTIVITÉS MUTUALISTES COOPÉRATIVES ET ASSOCIATIVES (1980), *Charte de l'économie sociale*, <http://www.ceges.org/index.php/ceges/presentation/leconomie-sociale-et-solidaire> (2014.05.08an ikusia).

- COMISIÓN EUROPEA (2011): «Comunicación de la Comisión al Parlamento Europeo, al Consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las regiones. Iniciativa en favor del emprendimiento social. Construir un ecosistema para promover las empresas sociales en el centro de la economía y la innovación sociales», Bruselas, 25.10.2011, COM(2011) 682 final.
- , (2014a): Survey on the performance of the PROGRESS Programme - Deadline 31/01, <http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=es&catId=987&newsId=2020&furtherNews=yes> (2014.05.08an ikusia).
- , (2014b): La iniciativa de emprendimiento social de la Comisión Europea (folleto) http://ec.europa.eu/internal_market/publications/index_en.htm
- COMITÉ DE LAS REGIONES (2002): DICTAMEN, de 14 de marzo, sobre «Asociaciones entre las autoridades locales y regionales y las organizaciones socioeconómicas: contribución al empleo, al desarrollo local y a la cohesión social», Ponente: VERKERK, Bas, ECOS-003, <https://toad.cor.europa.eu/CORWorkInProgress.aspx> (2014.05.08an ikusia).
- DEFURNY, J. eta MONZON, J.L. (dir.) (1992): Economía Social. Entre economía capitalista y Economía Pública, CIRIEC-España, Valencia.
- DE LA CUESTA RUTE, J.M. eta DE LOS RÍOS SÁNCHEZ, J.M. (2013): «Tema 6. Teoría general de sociedades mercantiles. Sociedades personalistas», en: DE LA CUESTA RUTE (dtor.), Derecho Mercantil, Huygens, Barcelona, 2.^a ed.
- DGRN (2001): «Resolución de la Dirección General de los Registros y del Notariado, de 14 de febrero, en el recurso gubernativo interpuesto por Grany Fruits, Sociedad Civil Particular, contra la negativa del Registrador de la Propiedad de Lleida, número 2, don Enrique Carbonell García, a inscribir una escritura de compraventa, en virtud de apelación del Sr. Registrador», BOE n. 69, 10558-1062 orr.
- EMBED IRUJO, J.M. (2003): «Notas sobre el régimen jurídico de las entidades sin ánimo de lucro, su estructura interna y la responsabilidad de sus gestores (especial referencia a las fundaciones)», Revista Valenciana de Economía y Hacienda, RVEH, n.º 7/I, 79-100 orr.
- ENCISO, M./ GÓMEZ URQUIJO, M./ MUGARRA, A. (2012): «La iniciativa comunitaria a favor del emprendimiento social y su vinculación con la economía social: una aproximación a su delimitación conceptual», CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa 75, 55-80 orr.
- FAJARDO GARCÍA, G. (2012): «El concepto legal de economía social y la empresa social», Revista Vasca de Economía Social. GEZKI 8, 63-84 orr.
- FERNÁNDEZ DE LA GÁNDARA, L. (1977): La atipicidad en el Derecho de sociedades, Pórtico, Zaragoza.
- GIRÓN TENA, J. (1976): Derecho de sociedades I, Ed. G.T., Madrid.
- GÓMEZ MONTORO, A.J. (2004): Asociación, Constitución, Ley. Sobre el contenido constitucional del derecho de asociación, Tribunal Constitucional. Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madrid.
- GRUPO PARLAMENTARIO CATALÁN (Convergència i Unió) (2013): «Proposición de Ley de apoyo a las actividades de los emprendedores sociales», de 10 de oc-

- tubre, Boletín Oficial de las Cortes Generales. Congreso de los Diputados n. 140-1, de 18 de octubre, 1-7 orr. http://www.congreso.es/public_oficiales/L10/CONG/BOCG/B/BOCG-10-B-140-1.PDF (2014.05.08an ikusia).
- ICA, INTERNATIONAL CO-OPERATIVE ALLIANCE (1995), ICA's Statement Cooperative Principles, Manchester, <http://www.gdrc.org/icm/coop-principles.html> (2014.05.08an ikusia).
- JIMÉNEZ ESCOBAR, J. eta MORALES GUTIÉRREZ, A. (2008): «Tercer Sector y univocidad conceptual: necesidad y elementos configuradores», *Revista Katálysis Florianópolis* vol.11 n.1, 84-95 orr.
- LEVITT, T. (1973): *The Third Sector-New Tactics for a Responsive Society*, Division of American Management Associations, New York.
- MELIÁN NAVARRO, A. eta CAMPOS CLIMENT, V. (2010): «Emprendedurismo y economía social como mecanismos de inserción sociolaboral en tiempos de crisis», *REVESCO*, n.º 100, 43-67 orr.
- MONZÓN, J.L. (2006): «Economía social y conceptos afines: fronteras borrosas y ambigüedades conceptuales del tercer sector», en: CIRIEC-España, *Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa* 56, 9-24 orr.
- PADILLA RUIZ, P. (2011): «Comentarios a la Ley 5/2011, de Economía Social», *Revista Aranzadi Doctrinal* 3, 129-137 orr.
- PANIAGUA ZURERA, M. (2011): *Las empresas de la economía social. Más allá del comentario a la ley 5/2011, de economía social*, Marcial Pons, Madrid.
- , (2013): «Notas críticas a la Ley 14/2011, de 23 de diciembre, de sociedades cooperativas andaluzas», *CIRIEC-España Revista Jurídica* 24, www.ciriec-revistajuridica.es (2014.05.08an ikusia).
- PARLAMENTO EUROPEO Y CONSEJO (2006): Decisión N.º 1672/2006/CE, de 24 de octubre, por la que se establece un programa comunitario para el empleo y la solidaridad social – Progress, DO L 315, 2006.11.15.
- , (2013): Reglamento (UE) N.º 346/2013, de 17 de abril, sobre los fondos de emprendimiento social europeos, DOUE L 115, 2013.4.25.
- PAZ-ARES, C. (1991a): «Ánimo de lucro y concepto de sociedad (Breves consideraciones a propósito del artículo 2.2 LAIE)», en: AA.VV., *Derecho Mercantil de la Comunidad Económica Europea (Estudios en Homenaje al Prof. José Girón Tena)*, Consejo General de los Colegios Oficiales de Corredores de Comercio, Madrid, 729-753 orr.
- , (1991b): «Comentario al artículo 1.665», en: AA.VV., *Comentarios al Código Civil*, Ministerio de Justicia, Madrid, Tomo 11, 1299-1333 orr.
- , (2006): «Capítulo 18» y «Capítulo 19» en: URÍA, R. /MENÉNDEZ, A. y otros, *Curso de Derecho Mercantil vol I*, 2.ª ed. Thomson-Civitas, Madrid.
- , (2007): «El buen gobierno de las organizaciones no lucrativas (reflexiones preliminares)» en: PÉREZ-DÍAZ, V. (dir.) *La filantropía: tendencias y perspectivas. Homenaje a Rodrigo Uría Meruéndano*, Fundación de Estudios Financieros y Fundación Uría, Madrid, 147-158 orr.

- PAZ-ARES, C. y ALFARO ÁGUILA-REAL, J. (2002): «Un ensayo sobre la libertad de empresa» en: CABANILLAS SÁNCHEZ, A. (coord.) Estudios jurídicos en Homenaje al profesor Luis Díez-Picazo, Civitas, Madrid, Tomo IV., 5971-6064 orr.
- TARAZONA CANO, P. y ALBORS ORENDO, J. (2005): La economía social y el desarrollo local. Revista Noticias del CIDEA no 45, 70-75 orr.
- TS (1995): Sentencia del Tribunal Supremo (Sala de lo Civil) Recurso núm. 531/1992, de 8 de junio, RJ 1995/4908.
- , (1998): Sentencia del Tribunal Supremo núm. 1113/1998, de 27 noviembre, RJ 1998/8781.
- UK GOVERNMENT, Department of Trade and Industry (2002): Social Enterprise: a strategy for success, London,
http://webarchive.nationalarchives.gov.uk/+http://www.dti.gov.uk/socialenterprise/strat_success.htm
- UP-SOCIAL (2013): Propuesta para la legislación de los emprendimientos sociales y la promoción de la innovación social en España, Versión 2.6, de 19 de junio, <https://dl.dropboxusercontent.com/u/6262737/Propuesta%20legislaci%C3%B3n%20emprendimiento%20e%20innovaci%C3%B3n%20social%20v26-Junio2013.pdf>
- VICENT CHULIA, F. (2002): Introducción al Derecho mercantil, 14.^a ed. Tirant lo Blanch, Valencia.
- WESTLUND, H. eta WESTERDAHL, S. (1996): «Contribución de la Economía Social a la ocupación laboral local», Revista CIRIEC-España 24, 23-39 orr.